







G 1681547

motatako pertsona juridikoak modu osagarrian izango dira onuradun. =====


Fundazio honen onuradun nagusiak diren pertsona juridikoak aukeratzeko, ondorengo erizpideak erabiliko ditu Zaingo Batzordeak: =====

- 1.- Soilik Durangoko udalerrian jardutea. =====
- 2.- Herritar guztiei zabaldua egotea. =====
- 3.- Bere jarduera guztiak soilik euskeraz burutzea.
- 4.- Gutxienez 15 urtean euskera, euskal kultura eta euskarazko hezkuntz edo kultur jardueretan aritzea.

Fundazio honen onuradun osagarri diren pertsona juridikoak aukeratzeko, ondorengo erizpideak erabiliko ditu Zaingo Batzordeak: =====

- 1.- Nagusiki Durangoko udalerrian jardutea. =====
- 2.- Euskera eta euskal kulturaren inguruan interesa adieraztea zenbait jarduera bultzatuz. =====
- 3.- Bere jarduera haur, gazte, helduei zein hirugarren adinekoei zuzendua egotea. =====

Banaka zehaztutako pertsonak ezin daitezke onuradun izan eta prestazio fundazionalak ezingo zaizkie



zuzendu fundatzaile, hauen ezkontide edo 4. gradurarteko ahaideei (azken gradu hau barne). =====

Fundazioak ematen dituen zerbitzuak direla eta, bere onuradunei kopuru bat ordaintzea galdatzen dienean, soilik galdatutako kantitate hori ordaintzen dutelako egingo da onuradunen zehaztapena. =====

Halaber, Fundazioaren berezko izaerak onuradunen zenbatekoa mugatzea eskatzen badu, hauen hautaketa eta zehaztapena modu errebokaenez Zaingo Batzordeak egingo du, kontutan izanda aurkezten direnen meritua, beharrian, gaitasun ekonomiko, probetxua ateratzeko aukerak edo beste ezaugarri objektiboak. Orohar, ezin dezake inork, ez banaka ez taldeka, fundazio edo bere organuen aurrean, eman aurretiko onuren gozamena eskatu ezta hauen esleipena pertsona zehatzei inposatu ere." =====

BIGARRENA.- Eusko Jaurlaritzaren Fundazio Erregistroaren arduradunari eskatzen zaio eskritura honen eta berorrek zuzendu etaosatzen duen "Kurutzia Fundazioa" Fundazioaren eskritura ere erregistro horretan inskribatzea. =====

Bere aukeraz, agerturiko andereari irakurtzen diot honako dokumentu hau; dokumentuaren edukiarekin bat egin eta sinatu egiten du nirekin, Notario honekin

